



Duela 34 urte Jon Oiarbide eta Manu Urionabarrenetxea eusko gudariak erail zituen Guardia zibilak

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 16/09/2023

Oiartzunen segada bat antolatu zuten indar errepresiboek eta tiroz hil zituzten ETA-ko bi militanteak.

1989ko irailaren 16an ETA-ko bi militante erail zituen Guardia Zibilak eta hiru Guardia Zibil zauritu ziren A-8 autobideko Irungo ordainlekuan. Gertakariaren lehen bertsioen arabera, Guardia Zibileko hogeit hamar kidek, kalez jantzita, kamioi bat ordainlekuan blokeatu zuten, honen atzekaldean lau militante zebiltzanean eta hor hasi ziren tiroak.

Jon Oiarbide kamioitik jaitsi baino lehen erail zuten tiroz Guardia Zibilak eta Manu Urionabarrenetxea granada baten leherketaz galdu zuen bizitza. Beste bi militanteak eta garraiolaria atxilotuta bukatu zuten. Hurrengo egunean enfrentamenduak egon ziren Oreretan eta Hernanin hilketa hauek salatzekeo protesta egin zuten jendearen eta indar errepresiboen artean.

<https://eh.lahaine.org/duela-34-urte-jon-oiarbide>